# HAMARGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1 - Zer muthiko zen anai gaztena -
2 - Aipa zazue ohoinen atxemaitez -
3 - Anaia zaharrena gizon ona zen? Zertako?

## (II) 10. ZAZPI OHOINAK 5

Zur-xuritik jautsi eta, badoa beraz jauregirat. Ixil ixila sartzen da; ikusten ditu zaldiak, ikusten ere urheak, zilarrak, harri baliosak.

Zaku handi bati lotzen da gero, harentzat han emana iduri baitzuen egiazki.

Lotzen da... eta, odoletan, hila erortzen, kanit bat bizkarraren erdian *zazpigarren* ohoinak hari hantxet landaturik...

* * *

Bi aste[2] iragan ziren holaxet.

Osoki eta bethikotz etsitu zuelarik, itzuli zen beraz anaia zaharrena ohoin-jauregirat. Nehor ez zuen han gaindi ausitu. Eta ez zen ere harritzeko, zazpi ohoinak sosegatu zirelakotz, muthil gaztea hala garbiturik.

Bere anaiaren gorphutza zilo batetara arthikia atxemanik, berekin hartu zuen zaldi baten gainera eta berekin eraman, lur sainduan hura ehortzi beharrez.

Luze bizi izan zen muthil bihotz onekoa. Bere anaiaz orhoitu eta, gogoa ilhuntzen zitzaion ardura. Bainan, haren eta beraren arimarentzat ongi gehiago egiten zuen orduan, eskuetan zituen ontasun handiekin. Eta, oihaneko atxo mixteriozkoaz orhoiturik, eskale bat egundaino ez du utzi etxetik urruntzerat, beraren eta bere anaiaren karitate ederra eskale hari egin gabe.

Eta lau-hogoi urthetan, gero, joan izan da bethiereko zorionaz bere anaia gaixoarekin gozatzerat.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31 - Badoa beraz    32 - Ilhuntzen zitzaion
33 - Nik zaitut    34 - Harek zintuen.

### 31. JOAN - Indicatif -

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Ni noa | = je vais | Ni nindoan | = j'allais |
| Hi hoa | = tu vas | Hi hindoan | = tu allais |
| Zu zoatzi | = vs allez | Zu zinoatzin | = vous alliez |
| Hura doa | = il va | Hura zoan | = il allait |
| Gu goatzi | = ns allons | Gu ginoatzin | = nous allions |
| Zuek zoazte | = vs allez | Zuek zinoazten | = vous alliez |
| Hek doatzi | = ils vont | Hek zoatzin | = ils allaient |

### 32 IZAN Régime Indirect Indicatif Imparfait

Pluriel

Gu ginen = nous étions

Gu = (nous) gintzaizkizun (à vous) = nous vous étions
— // — gintzaizkion (à lui) = nous lui étions
— // — gintzaizkizuen (à vous) = nous vous étions
— // — gintzaizkien (à eux) = nous leur étions

~~Zuek zinezten = vous étiez~~

Zuek (Vous) zintzaizkidaten (à moi) = vous m'étiez
— // — zintzaizkioten (à lui) = vous lui étiez
— // — zintzaizkiguten (à nous) = vous nous étiez
— // — zintzaizkieten (à eux) = vous leur étiez

Hek ziren = ils étaient

Hek = (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient
— // — zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
— // — zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
— // — zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
— // — zitzaizkizu (à vous) = ils vous étaient
— // — zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient